

## 2. gidoia: Askotariko ahotsak

### Deskribapena

"Askotariko ahotsak" gidoiak ikastetxeko jaialdi kultural baten historiari jarraitzen dio, non ikasleek beren kulturako zenbait elementu partekatzen dituzten. Narratibak aniztasunaren eta inklusioaren garrantzia nabarmentzen du, tradizio eta ohitura desberdinak ezagutzea eskola-komunitatearentzat aberasgarri izan daitekeela erakutsiz.

### Helburu pedagogikoa

Gidoiaren helburu pedagogikoa da kulturen arteko ulermena eta ikasleen arteko errespetua sustatzea. Hainbat kultura aztertuz, ikasleek aniztasuna aitortzea eta baloratzea lortu nahi da, jarrera inklusibo eta enpatikoa garatuz. Narratibak aurreiritzi eta errezeloei buruzko elkarrizketa irekia bultzatzen du, eta eskola-ingurune inklusiboagoa eta errespetutsuagoa sortzen aktiboki parte hartzera animatzen ditu ikasleak.

### Eszenen taula

Eszena	Deskribapena	Elkarrizketak
<b>E00</b>	Kulturen Jaialdirako sarrera. Goranek ekitaldia aurkezten du, zenbait kultura ezagutzeko eta elkarren arteko ulermena eta	<b>Gorane:</b> Gaurkoa egun berezia da, Kulturen Jaialdia ospatzen dugu-eta. Jaialdiaren helburua da inguratzen gaituzten kulturak hobeto ezagutzea eta elkartasuna eta errespetua sustatzea. Gure ikaskideen tradizioak, janariak eta ohiturak ezagutzean, aberastu egiten dugu gure komunitatea. Egun bikaina igaroko duzuela espero dut,

	errespetua sustatzeko helburua nabarmenduz.	historia berriak ezagutuz eta zuenak partekatuz! Gogoan izan: aniztasunak elkartu eta indartu egiten gaitu.
<b>E01</b>	360 panoramikak gimnasioan, ikasleekin eta zenbait kultura ordezkatzeko dituzten objektuekin. Hotspot bat sakatzen den bakoitzean, pertsonaia batek modu dinamiko eta interaktiboan azaltzen du elementu kulturala.	<p><b>MAROKO HOTSPOTAK</b></p> <p><b>Alfonbra:</b> Marokoko tradizio luzea du alfonbrak ehuntzen. Hauek <i>Rihal</i> dute izena, eta kolore biziekin eta askotariko teknikekin ehunduta daude. Ba al zenekiten alfonbra bakoitzak historia bat kontatzen duela?</p> <p><b>Eltzegintza:</b> Eltzegintza Marokoko espezialitate nagusietako bat da. <i>Tajine</i> izeneko pieza hau janaria prestatzeko eta janaria bero mantentzeko erabiltzen da. Probatu al duzue inoiz <i>tajine</i> batean prestatutako Marokoko platerik?</p> <p><b>Henna:</b> Gustatzen al zaizu besoan daramadan hennazko tatuajea? Marokon tipikoak dira, eta ekitaldi berezietarako egiten dituzte. Tindu naturala da; denborarekin, desagertzen joaten da.</p> <p><b>Zumezko saskia:</b> Saskigintza Marokoko eskulangintza apalenetako bat da. Zenbait landare erabiltzen dituzte lehengai gisa. Ba al zenekiten diseinu bakoitzak helburu espezifiko bat duela?</p> <p><b>UKRAINA HOTSPOTAK</b></p> <p><b>Dibisa:</b> Hau Ukrainako dirua da: <i>grivna</i>. 1 euro 40 <i>grivnaren</i> baliokidea da. Atzerriko beste dirurik ezagutzen al duzue?</p>

**Ekilorea:** Ekilorea Ukrainaren sinbologia da, eta bizi-indarraren haragitzea irudikatzen du.

Ba al zenekiten Ukraina munduko ekilore-ekoizle nagusietako bat dela?

**Gastronomia-argazkia:** Ukrainako gastronomia aberatsa eta askotarikoa da. Landako osagai asko erabiltzen ditu bertako sukaldaritzak. Zein da zuen platerik gogokoena?

**Pazko-arrautzak:** *Pisanka* Pazko-arrautzak tradizioa dira Ukrainan. Haurrek kolore deigarritz pintatzen dituzte Pazkoaldian. Gustatuko al litzaizueke bat pintatzea?

#### **KOLONBIA HOTSPOTAK**

**Motxila:** Motxila hau Kolonbiako tipikoa da. *Arhuaca motxila* deitzen zaio, eta artilez edo kotoiz egin dago. Horrelako bat egiten ikasi nahiko zenukete?

**Argazkia:** Hona hemen Kolonbiaren argazki bat. Ba al zenekiten Kolonbia bere askotariko paisaia koloretsuengatik dela ezaguna?

**Tiplea:** Hau Kolonbiako musika-tresna nazionala da. *Tiple* du izena. Runba, merengea eta balsa bezalako erritmoei laguntzeko erabiltzen da. Musika-tresnarik jotzen al duzue?

#### **NIKARAGUA HOTSPOTAK**

**Liburua:** Nikaraguako literatura aberatsa eta askotarikoa da, bereziki poesia. Liburu hau Rubén Darío ospetsuak idatzi zuen. Olerkari famaturik ezagutzen al duzue?

**Argazkia:** Nikaraguan dantza tradizional ugari daude, hala nola *El Gigante*, *Toro Huaco* eta *Baile de Negras*. Dantza hauetakoren bat ikasi nahi al zenukete?

		<p><b>Artoa:</b> Nikaraguako elikaduraren oinarria artoa da. Plater ikonikoetako bat <i>Gallo Pinto</i> delakoa da: arroz frijitua piperrekin, tipularekin eta babarrunekin. Zein da artoarekin egindako janarien artean gehien gustatzen zaizuen?</p> <p><b>EUSKADI HOTSPOTAK</b></p> <p><b>Txapela:</b> Euskal Herriko ikono kulturaletako bat bertsoaritzza da, bertsoak bat-batean botatzean datzan artea. Zuek zer moduz moldatzen zarete bertsoak botatzen?</p> <p><b>Aizkora:</b> Objektu hauek Euskal Herriko kirol batzuk adierazten dituzte, eta euskaldunen eguneroko zereginetan oinarritzen dira. Aizkora, sega-proba, sokatira, harri-jasotzea, euskal pilota... Kirol horietakoren batean aritu al zarete inoiz?</p> <p><b>Txalaparta:</b> Euskal musika-tresna tipikoen artean, trikitia, txistua, danbolina eta txalaparta dauzkagu. Zuek jotzen al duzue musika-tresnarik?</p> <p><b>Sagarrak:</b> Euskal gastronomia oso zabala eta askotarikoa da, Kantauriko eta barrualdeko osagaiez betea. Zer moduz moldatzen zarete sukaldean?</p>
<p><b>E02 – Amaiera</b></p>	<p>Azken eszenak Gorane erakusten du Instagramen antzeko plataforma baterako podcast bat grabatzen, Kulturen Jaialdiko ekitaldiak laburbilduz eta ikasitako irakaspenei buruzko gogoeta eginez.</p>	<p><b>Gorane:</b> Kaixo, ongi etorri Kulturen Jaialdiari buruzko nire podcastera. Sekulako eguna izan da gaurkoa; asko ikasi dugu, eta errespetuz eta, batez ere, dibertsioz gainezka egon da.</p> <p><i>[Gimnasioaren 360 panoramikaren klipa, hotspotekin]</i></p>

	<p>Kamerak Gorane hitz egiten eta jaialdiko une gogoangarrien klipak tartekatzen ditu.</p>	<p><b>Gorane:</b> Marokoko, Ukrainako, Kolonbiako, Nikaraguako eta Euskal Herriko tradizio batzuk ezagutu ditugu. Besteak beste, Marokoko alfonbrak eta Kolonbiako musika gozagarria izan ditugu gurekin. Kultura bakoitzak paregabea eta baliotsua den zerbait erakutsi digu.</p> <p><i>[Ikasleen klipa, elementu kulturekin elkarreaginez]</i></p> <p><b>Gorane:</b> Gaur ikasi dugun gauza garrantzitsuenetako bat inklusioak eta errespetuak daukaten garrantzia da. Gutako bakoitzak historia bat dauka kontatzeko, eta, historia hori partekatzean, aberastu egiten dugu gure komunitatea.</p> <p><i>[Beren historiak partekatzen ari diren ikasle batzuen klipa]</i></p> <p><b>Gorane:</b> Eskerrak eman nahi dizkiet jaialdian parte hartu duten eta beren kulturak besteekin partekatu dituzten ikaskide guztiei. Gogoan izan aniztasuna besarkatzeak elkartu egiten gaituela eta indartsuago bihurtzen gaituela. Jarrai dezagun aniztasuna ospatzen eta elkarrengandik ikasten!</p> <p><i>[Jaialdiaren amaierako klipa, ikasleak barrez eta partekatzen ari direla]</i></p> <p><b>Gorane:</b> Eskerrik asko guztiei, entzuteagatik! Jarrai gaitzazue gure sare sozialetan, eta partekatu zuen esperientzia kulturalak. Hurrengora arte!</p>
--	--	---